

Arrasate

UPRESSU

1995eko
apirilak 12
273. zenb.


UGARTE BINGOA MILA (UDALLETXEA)
HERRIKO PLAZA
ARRASATE

0

9

**Altzari
birziklapena
ogibide**

K A F E



APIRILA

28an (ostirala/viernes)
Grupo Saltimbanqui (Mexiko)
 "Cuentos de tradición indígena"

29an (larunbata/sábado)
Bululu Théâtre (Frantzia)
 "El ciego, el títere, la muerte,
 el escultor, el idiota,
 una historia de amor" (7 istorio)



Arrasateko Udala
 Kultura Saila

MAIATZA

5ean (ostirala/viernes)
Lourvier's (Donostia)
 "Lourvier's Saloon"

6an (larunbata/sábado)
Ñake (Gasteiz)
 "Pocos y mal avenidos"

Laguntzaileak:
 Auzolagun E. Koop. eta Aterpe taberna

a n t z e r k i a

AMAIA ANTZOKIAN

Gaueko 10.30etan • Sarrera: 500 pta. (Gazte Txartelarekin: 400 pta.). SARRERAREKIN KAFA DOAN.



Berango

Elektragailuetan marka guztiak • Armairu enpotratuak ate korrigarriekin

ALTZARIAK
 5 URTEKO
 GARANTIAZI!

Legarre
 Pabilioia, z/g
 Gipuzkoa Etorb.
 Tfnoa: 79 01 92

Iparraldea hizpide

Iparraldea hizpide izan da egun hauetan eta gogoeta batzuk egiteko aukera ematen digu bi arlotan: Iparraldeaz dugun ezagupena eta lehengo "intsumitu"ei buruzkoa.


1) Berri bitxia irakurri genuen apirilaren Ieko Egunkarian: alegia Leizarragaren Testamentu berria Jean Haritxelhar, Euskaltzaindiako Lehendakariak erosi omen zuela.

Eta berri hau notizia bihurtu da beste askorentzat ere. Gero izan dira kontuak, jendea ohartu denean zein egun zen. Hego Euskal Herrian inuxente egunaren antzekoa baita apirilaren Ieko "arrain eguna" Iparraldean.

Espainiako ohiturekin lotuta gaudeenez, ez ditugu ezagutu ere egiten Iparraldeko ohiturak, Frantziakoekin lotuta kasu honetan.

Eta hau ez da ezjakintasuneko kasu bakarra: zenbat bider entzun diogun Hendaiara doanen bati "Frantziara noa hortzadura konpontzera". Eta Irundik Hendaiara pasa ezker, frantsesak dira hango biztanleak edo eta gabatxoak, hemendik doazenen hitzetan.

Izan ere, ez daukagu aukera handirik Iparraldea ezagutzeko: ETBko eguraldiaren mapa ikustea eta Euskaldunon Egunkaria irakurtzea bakarrik.



2) Han eta hemen intsumituak azaltzen ari diren hontan, harira dator Iparraldean eragin nabarmena izan duten intsumituak gogoratzea.

Iraultza Frantsesak kontra zituen aurreko agintariak eta baita beren eskubiderik gabe utzi zituen euskaldunak ere.

1794an 47 euskal gaztek ejerzitioa zerbitzatzeari uko egin ziotelako, Landetara deportatu zituzten herri osoak, 4.000 lagun inguru bizilekutik 90-100 kilometrorra. Jasandako tratu txarren ondoren, gosea, mixeria eta zikinkeria zela medio, 1.600en bat lagun hil omen zen.

Errepresio basati honekin, erabat otzandu zituzten euskaldunak eta txikizioa eta hondamendia besterik ez die ekarri ondoko gerrateak. Frantziaren defentsan munduko I. eta II. gerratean parte hartzera behartu zituzten euskaldunak, "Azken agurraren negarra" izeneko kantu hunkigarriak dioen modura:

*Gure historian zehar
zenbat malko eta ezbehar
Landetaratu gindutenekila
dugu orain hil behar.*

*Morts pour la patrie,
morts pour la patrie,
eskuara baizik ez
zekiten haiek,
morts pour la patrie".*

Aipatutakoez gain, Ifar eta Hego aldean gazte asko izan dira soldadutza ez egitearren alde egin behar izan dutenak, Ameriketara batez ere.

RUFINA OLASAGASTI

• **ARRASATE PRESS** •
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Leguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Beñardo Kortabarria. Kazetariak: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. Publizitatea: Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). Administrazioa: Ikeme Altube eta Itxaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). Maketazioa: Goio Arana. Kolaboratzaileak: Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües. Banaketa arduraduna: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Goio Arana

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



Alkoholarekin arazoak daukazazu?

Agian,

“Alkoholiko Anonimoek” lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

Kanpaldia Itoitzen

Gure herrian daramagun gatazka ekologiko hone-tan parte hartzea garrantzi-tsu delakoan gaude. Hau horrela izanik, Itoitzen urte-gia eraikitzearen aurkako koordinakundeak bidali digun gutuna helarazten dizuegu. Anima zaitezte!

Itoizko Koordinakunde-ak Nafarroako beste talde ekologista batzurekin bate-ra, Eguzki, Anat Lane, Uga-tza, Ongaitz eta Landazuria, Aste Santurako KANPALDI bat antolatu du Itoitzen. Kan-paldi hau apirilaren 12an, asteazken arratsaldean hasi eta apirilaren 17an, astele-henean, bukatuko da. Kan-paldi honen azpiegiturak, aurrekoetan bezala, barne izango ditu honako zerbitzu hauek: edari salmenta eta bazkaria eta garbiketa egite-ko sukaldea, hozkailu eta arraskak.

Kanpaldiaren helburua, Aste Santua aprobetxatuz, modu sakon eta zuzenean Itoizko urtegiaren lanak eta gaur egungo egoera ezagu-tzea. Modu berean, lan honi buruzko materiala jasotze-ko aukera izango duzue.

Beste aldetik ere, gure asmoa da gertatzen ari diren irregulartasun eta ilegaltasun guztiak ezagutzera ematea; batez ere Txintxurrinean ematen ari direnak. Harrobi honetatik urtegia egiteko materiala ateratzeko asmoa dute eta naturgune eta EBBE izateak delitu ekologiko-gatik Kereila Kriminal bat

ezartzera eraman gaitu.

Aukera aprobetxatuko dugu urtegiak urperatuko lukeen eremua ezagutzeko, barruan dauden hiru natur-guneak eta EBBE-ak ere.

Beste helburu bat denen artean erabakiko diren mobi-lizazioen bidez, urtegiaren lanen jarraipena salatzea da. Guzti hauen eta uraren pro-blematikaren inguruan hit-zaldiak, eztabaidak eta bideo proiektzioak antolatzeaz gain, kontzertuak eta beste ekitaldi batzuk izango dituzue.

Informazio gehiago jasotzeko, dei egin ezazue Itoizko Koordinakundearen telefono hauetara: Agoizko sedita: (948) 33 65 75. Iru-ñekoa: (948) 22 61 28

MIKEL OLABE. EKI

HURRENGO ALEA

Zuetariko askok bezala, ARKOko langileok jai har-tuko dugu bihar bertan hasten den Aste Santuan eta bai-ta Pazko Astean ere. Hori dela eta apirilaren 28ra arte ez duzue eskuartean ARRASATE PRESS berri-rik izango. Ordura arte, zintzoak izan eta ondo bizi!

Joan den asteko alean aurrekontuei buruz kaleratu genuen laburpenean hezkuntzarako laguntzak gehiago zahaztea eskatu digute. Ondasun eta zerbitzu eroske-ten barruan eskolei honela banatuko zaie dirua: 3.600.000 pta. Erguin eskolara 2.050.000 pta. San Andres esko-lara; 3.750.000 pta. Musakola eskolara. Horretaz gain, 2.300.000 pta emango zaie eskola publikoei subentzio moduan.



Taberna-jatetxea Kafetegia

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABAETA

Zer egingo duzu Aste Santuan?




Pablo Zubillaga
Langilea
(48 urte)

Astebukaera guztietan bezala, Donostiara joango naiz. Aste Santuko egunak bertan emango ditut, giro ona izaten da eta. Mezetara ere joango naiz.



Lucia Arenaza
Etxekoandrea
(80 urte)

Herrian geratuko naiz, eta beti egin dugun legez parrokiara joango naiz mezak entzutera.



David Avila
Ikaslea
(16 urte)

Hemen geratuko naiz eta eguraldi ona egiten duenean mendira joango naiz eta bestela, lagunekin futbolean jolastuko dut.



Amalia Alonso
Langilea
(50 urte)

Galizian pasako ditut Aste Santuko oporrak. Han lagunak ditut eta beraiekin pasako ditut jai egunak lasai-lasai.



Mari Pascual
Langilea
(33 urte)

Lan egin behar dut, beraz ez naiz kanpora joango eta lanean pasako ditut Aste Santuak.




Jose Angel Blazquez
Langabezian
(36 urte)

Emazteak lan egin behar duenez hemen geratuko gara. Eguraldi ona egiten badu Urkulura joango naiz, pasiatu eta eguzkia hartzera.



Jaione Bastardo
Langilea
(23 urte)

Errioxara joango naiz kanpinean egun batzuk pasatzera. Aste Santuko oporrak lasai-lasai pasako ditugu: bizikletan ibili, Logroñora joan...



Patxi Esposito
Langilea
(25 urte)

Urtero moduan Malagara joango naiz, eguzkia hartu eta atsedean hartzera.

ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.


SEGUROS
BILBAO

- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Asteazkena 12

Egunez eta gauzez : Mozas. Bergara.
 10ak arte: Morales. San Andres auzoa.

Osteguna 13

Egunez eta gauzez : Camacho. Bergara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías kalea.

Ostirala 14

Egunez eta gauzez : Puy. Bergara.
 10ak arte: Español. Iturriotz kalea.

Larunbata 15

Egunez eta gauzez : Cullar. Bergara.
 10ak arte. Irizar. Erguin kalea.

Igandea 16

Egunez eta gauzez :
 Azkoaga. Ferrerías kalea.

Astelehena 17

Egunez eta gauzez : Español Iturriotz.

Asteartea 18

Egunez eta gauzez:
 Morales. San Andres auzoa.

13 OSTEGUNA

• **ZINEA**
 "Neil" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **OSTEGUN SANTUA ELIZKIZUNAK**

Mezak: Arratsaldeko 6etan San Juan Bataiatzailea Parrokian, San Andres Elizan. 7etan, San frantziskon, Santa Teresan eta Santamainan. 8etan Uribarrin.

1

14 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Neil" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **OSTIRAL SANTUA**

8etan Gurutz bidea, Portaloitik hasi eta Santa Barbaraino. 11etan Aitortza komunitarioak San Juan Parrokian. 11etan Gurutz bidea Uribarriko eta Santamainako parrokian eta 12 etan Sta Teresan. Mezak: 5etan San Juan B, Uribarri, S. Andres, Sta Teresan. 6etan S. Frantziskon eta Santamainan.

• **DOKE TXAPELKETA**

XV. Elkarte arteko Doke Txapelketa. Goizeko 10etan. Irabazleak Udaleko zinegotzien kontra. Goizeko 12etan. SUDCek antolatuta.

15 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Neil" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **LARUNBAT SANTUA**

Mezak: 8etan Sta Teresan. 9.30etan S. Frantziskon eta 10etan S. Juan B, Uribarri, S Andres eta Santamainan.

16 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Un regalo para papa" 5etan ,
 "La reina Margot" 7.30etan eta 10etan.

• **PAZKO IGANDEA**
 Mezak ohiko orduetan.


• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Deskarga, Zumarraga, Gabiria, Ormaiztegi eta Arrasate, 62 km gutztira. Irteera goizeko 10etan Monterronetik

17 ASTELEHENA

• **ZINEA**
 "Un regalo para papa" 5etan, "
 La reina Margot" 7.30etan eta 10etan.

18 ASTEARTEA

• **ZINEA**
 "La reina Margot" 7etan eta 9.30etan.



MALABAR IKASTAROA

Apirilaren 18tik 22ra Malabar ikastaroa arratsaldeko 4etatik 7etara. Emaleak: Tunantes del Norte. Antolatzailea Txatxili-purdi elkarte. Informazioa: 79 54 46

ARGAZKI RALLYA

Apirilaren 23an argazki rallya goizeko 10etan Arrasateko plazan. Gaia: Arrasateko eraikuntza pribatu nahiz publikoak. ASAk antolatuta.

KIROL MATERIALAK EUSKARAZ SORTZEKO BEKA

Interesatuak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura bidali beharko dituzte eskabideak. Euskaraz sortzeko beka izenburua jarritz, honako hauek bidaliko dira: fitxen aurkibidea, sei fitxa hiru teorikoak eta hiru praktikoak, fitxak egiteko kontsultako bibliografiak. Eskaerak aurkezteko azken eguna, maitzaren 22a izango da

Arrakastatsua Pla-ren kontzertua

Jende asko izan zen Albert Pla kantariak joan den ostiralean eman zuen kontzertuan. Gutxi gorabehera 300 lagun inguru hurbildu ziren antzokiko hallera kataluniarraren kantak entzutera. Ordubate inguru iraun zuen kantaldiak eta ikusleen arabera ondo egon ei zen.

G. Etxabe atxilotu

Astelehen goizean Goio Etxabe arrasatearra atxilotu zuen Ertzantzak, ustez ETako komando legal bateko kide delakoan. Ertzaintzak emandako datuen arabera, iaz Bakuben aurkitu zuten zuloarekin harremana izateagatik atxilotu dute. Zuloan arma eta lehegaiak aurkitu zituzten. Gestorek deituta,



Lantegi Eskolaren hirugarren proiektua

Lantegi Eskolaren hirugarren proiektua izango dena aurkeztu zuen joan den ostiralean Deba Garaiko Mankomunitateak. 18 eta 25 urte bitarteko 56 gaztek, lan eginez ofizio bat ikasteko aukera izango dute eta hirugarren proiektu honetan, enpresa ekintzatarako zentroari itxura ematea izango da ikasleen zeregina. Enpresa bat sortu nahi dutenek horretarako toki bat izan dezaten eraiki nahi da zentroa.

Hirugarren proiektuak 194 miloiko aurrekontua izango du, 145 INEMek jarrita eta gainontzekoa eskualdeko Udalek. Arrasateko Udalarri bestalde, zentru berriko estruktura egiteko 40 miloi luzatzea eskatu zaio.

astelehen eta astearte arratsaldean manifestazioa egin zen Arrasaten. Gestorek azaldu zuten, Audientzia Nazionalaren aginduz egin zen atxiloketa.

EZKONTZAK

- Juan Carlos Conde Calle eta Maria Teresa Pérez Cortés. Apirilaren 7an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Maria Zubizarreta Arzamendi. Apirilaren 1ean. 83 urte.
- Juana Gabilondo Azpiri. 5ean. 84 urte.
- Maurina Peña Gonzalez. 5ean. 78 urte.
- Fidel Casatorre Sanchez. 6an. 56 urte.
- Rosaura Gomez Rosales. 9an. 60 urte.
- Juan Ceceaga Ugarteburu. 8an. 89 urte.



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

Euskaldun multzo handi batentzat haste-hastetik garbi zegoen esku beltzaren burua Estatuaren buruzagitzan zegoela eta dagoela, dagoela diot ez baita oraindik esku beltza moztu eta ehortzia. Izan ere, delako esku beltza izen askorekin ibili da (Triple A, BVE, GAL, Guerrilleros de Cristo Rey...) izen gabe ere ibilia da eta oraindik berri latz eta ilun askori so egiten badiogu, ezin esan ehortzia dagoela. Orain, azkenean bada ere, gure ustea egiaztatu da, baina bagara beldur beste uste bat ez den nagusituko, beldur baikara epaileak ez dituztela utziko bururaino joaten, esan nahi dugu babesleak, laguntzaileak, berriemakalariak eta abar ez dituztela epaituko. Guzientzat ona litzateke behingoz gure uste eta beldurrak zentzugabeak gertatuko balira.

Jose Manuel Gallastegi "Peixoto", apirilaren 5a.

egin

¿Zein harreman duzu Santa Agedako beste gaisoekin?

Oso harreman txarra. Egun osoa gerran pasatzen dute, "ero kolpatzaile" planean eta zaindariak ez dute ezer egiten. Eroetxea infernua da.

¿Eta munduarekin?


Bisitara badatoz, betirako amodioa. Ez badatoz, betirako gorrotoa. Patricia Highsmith-en ipuin bateko atso zaharra naiz. Poesia batean azaltzen dut: "gizonak isiltasunaren epaitegian jolasten duten bitartean taberna bakartian dagoen atso zaharra naiz". Ah, beste gauza bat, difamazio prozesua jarri behar diot TVERi hiltzaile deitzearen.

Leopoldo Maria Panero, apirilaren 10a.

EL CORREO

Zergatik orain Mondragon Abesbatza izena?

Egia esan Goikobalu izenak ez du "saltzen". Izen hori Arrasaten ezaguna da baina kanpoan ez dakite Goikobalu abesbatza nongoa den. Azken sei urteetan gauza garrantzitsuak egin ditugu eta hala ere, uste dugu kanpoan ez gaituztela ezagutzen. Mondragon izenak pisu handiagoa du eta izen horrekin kanpoan ezagunak izateko errazagoa izango dela iruditzen zaigu. Gainera orain dela gutxi disko konpakto bat grabatu dugu eta MCCk lagundu digunez, konpaktoari Mondragon abesbatza izena ipini diogu. Izen berriarekin, produktua errazago salduko dela uste dugu. Izena aldatzearen asmoa aspalditik datorren zerbait da, baina azken erabakirik ez dugu hartu. Beraz, horrek ez du esan nahi hemendik aurrera Goikobalu izena erabiliko ez dugunik.



Rakel Murgiondo
Mondragon Abesbatzaren lehendakaria

Horrez gain, Carmina Burana lana prestatzen ari gara eta obra horretarako inguruko abesbatzetako jendea etorri denez, uste dugu izena aldatuta erosoago sentituko direla. Horrela partaide berriek ez dute Goikobalura datozen inpresiorik eta egia esan hainbeste kantari berrirekin Carmina Burana ez da Goikobalurena bakarrik. Carmina Burana lanean beraz, Mondragon abesbatzak parte hartuko du Errusiako orkestrarekin batera. Bide batez, lerro hauetan Luis Sagastari eta Eduardo Clauseni eskerak eman nahi nizkieke, guk Errusiako Orkestrarekin abestea posible egin dutelako.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Joseba Ugalde (IU-EB)

Jendearen partehartzearen alde

Joseba Ugalde.

Ezker Batuko alkategaia.

Adina: 43 urte

Ezkondua

Lanbidea: Fagorreko

Kontseilu Sozialako lehendakaria

Afizioak: Zinema, irakurtzea eta bidaiatzea

- Zeintzuk dira Ezker Batuaren programaren puntu garrantzitsuenak?

- Herritarrek ez dute erabakietan parte hartzen eta gure ustez gai garrantzitsuetan erreferendumak egin beharko lirake. Ezker Batua hori bultzatzen saiatuko da. Horretaz gain, erdialdea peatonalizatzeko eta auzoetako biztanleen erosotasunerako, herrian ibiltzeko garraio publikoa jarri behar litzatekeela iruditzen zaigu. Bergean badute autobus urbanoa eta hemen ere egon beharko litzateke. Emakumearendako, berriaz, Udalean batzorde bat antolatu behar dela uste dugu. Batzorde horrek bere aurrekontua izango luke eta ema-

kumearen arazoei irtenbidea ematen ahaleginduko litzateke.

- Zein emaitza lortzea espero duzue?

- Zinegotzi bat behintzat lortuko dugu eta parte hartzearen arabera baliteke bigarrena lortzea ere.

- Alkate aukeratuko bazintuzte zer egingo zenuke berehala?

- Taldeetako partaideekin bilduko nintzateke gai garrantzitsuetan erreferendumak egiteari buruz zer pentsatzen duten jakiteko. Udalak ez badu hiritarren parte hartzea bultzatzen hutsik geratzen da.

- Zer da Ezker Batuak eman dezakeena eta beste alderdiek eman ezin dutena?

- Udalean gobernua eta oposizioa egon behar dira eta gu gobernuan ez bagara sartzen oposizioa egingo dugu. Baina oposizioa Udalean eta kalean egingo dugu, jendeak parte har dezan.

- Beste alderdi batzuekin pakturik egiteko asmorik?


- Guk gure programa aurkeztuko diegu gainontzeko alderdiei ados ote dauden ikusteko. Adostasuna bada go paktua egin daiteke baina gure programarekin kointzidentziarik ez badute, ez.

- Ilusiorik egingo lizuke alkate edo zinegotzi izateak...

- Batez ere alderdiagatik egingo lirake ilusioa, Ezker Batua Udalean ikustearren. Bestalde badaikit zinegotzi izanda lana egin behar dena eta hori ardura handia da.

"Ilusioa egingo lirake Ezker Batua Udalean ikustek"

Joseba Ugalde (Ezker Batua)



■ Errolda ikusgai


Astelehenetik martitzenera, udal hauteskundeetan erabiliko diren erroldaren zerrendak ikusgai egon ziren Udaletxeko arkupetan. Errolda berria zela eta, bakoitzaren izena bertan azaltzen zen edo ez ikustea komenigarria izan da. Bi egun horietan begiratu ez bazenu, apirilaren 17ra bitartean Gipuzkoako hauteskunde erroldaren bulegoan, Donostian, ikusi ahal izango duzu zerrendan ageri ote zaren. Maiatzaren 28an ezusterik izan ez dadin, hobe norbera ageri den ziurtatzea!

■ HBk argazkia atera

Zapatuko eguraldi ona aprobetxatuz, HBko hautagaiak hauteskundeetan behin baino gehiagotan erabiliko duten argazkia atera zuten Santa Barbara parkean. Ezin ukatu paraje ederra aukeratu izana.

■ Arzallus Batzokian

Xabier Arzallus EAJko burua gaur arratsaldeko 7.30etan bilduko da Arrasateko alderdikideekin Iturriotzeko batzokian. Oraindik kanpaina ez da hasi, baina ikusten denez alderdiak hasi dira motorrak berotzen, Arzallus-en gaurko bisitaz gain, atzo EAJko hautagaien zerrenda osoaren aurkezpena egin zen eta.



* Kontxi Malet

Umeak falta zaizkigu

Arrasateko biztanlegoari buruzko datuak ezagutarazi dira orain gutxi. 1995eko urtarrilaren leian, behin behineko datuen arabera, Arrasaten 24.786 lagun bizi da. Horren arabera behe-rantzako joera egiaztatzen da.

Jakinaenez, biztanle kopuruari begiratzerakoan, kontuan lau gauza hartu behar izaten dira: alde batetik jaiotzak eta heriotzak, bien arteko diferentziak emango digu saldo begetatiboa; bestetik emigranteak eta inmigranteak, eta horrek saldo migratorioa emango digu.

1994ko datuak hauek izan ziren:

Jaiotzak 153
Inmigrazioa 230
Heriotzak 189
Emigrazioa 465
Saldo begetatiboa -36
Saldo migratorioa -235

Aurreko urtearekin konparatuz gero: 271 biztanle gutxiago, %-1,1a.

Zenbaki hauek aurreko urtearekin konparatuta, jaiotze kopuruan %15eko beharakada dugu, heriotzetan %10ekoa, inmigrazioan %16ko gehikuntza, eta aurreko urteko emigrante kopuru berdina.

Urte bat eta bestearen arteko alderapena azken bi bosturtekotan gertatutakoarekin

.....

“Aldaketarik nabarmenena jaiotza kopuruari dagokiona da: ume barik geratzen ari gara”

osa genezake, jaiotzen kopuruan %28ko beherapena izan da, heriotzak %6an gehitu dira, inmigranteen kopurua %16an igo da eta emigratzen dutenen kopuruan %12ko igoera gertatu da.

Aldaketarik nabarmenena jaiotza-kopuruari dagokiona da: ume barik geratzen ari gara. 1985. urtera arte, saldo begetatiboa inmigrante eta emigranteen arteko aldeak sortutako biztanle kopuruaren galera orekatzen zuen. Orduetik hona, zenbaki absolutu zein erlatiboetan, jaiotza kopurua jeitsiz joan da.

Heriotza eta jaiotzen arteko desorekaren ondorioz tasa begetatibo negatiboak sortzen ari dira. Ez dira gutxitzen saldo migratorio negatiboen ondorioak eta ezta belanaldien arteko ordezkapen orekatua ere, ondorioz biztanle-goaren zahartze prozesua gauzatzen ari da.

Behar bada egoera ekonomikoaren hobekuntzak edo beste era bateko estimuloren batek jaiotze kopuruaren jaiotsiera frenatu ahal izango du, edo akaso jaiokuntza bera berpiztuko luke, baina desoreka gertatu da.

Bizi-kalitate mailaren igoera eta osasun arloan gertatutako aurrerapen teknikoak, urte gehiago bizi ahal izateko balio digute. Dena dela, jaiokuntzaren beherakadak egoera aldatu du: ilobez inguratutako aiton-amonen irudia, aitonez inguratutako ilobien irudiagatik aldatu behar du gugu.

* SOZIOLOGOA

ANDER ETXEBERRIA

USTEAK USTE

O SOLE MIO

Hilabete dela opera lehen aldiz bertan gozatzeko parada izan zuen Arrasateko herriak. Eta ez zuen aukera galdu; bi emanaldietan izugarritzko jendea gerturatu zen (lehenengorako sarrerak egunetako aurrerapenez agortu ziren). Orduan, “Arrasaten kultura musikal handia dago” entzun genuen.

Handik aste batera, asteburuan zehar, folk jaialdia ospatu zen. Hau ere, kalitate handikoa eta aurretik ezagutu gabeko esperientzia herrian. Jasotako erantzuna, ordea, bestelakoa izan zen, emandako saioetan ez zen lagun askorik bildu.

Hortaz, haserako esaldiari buelta ematerik al dago?

Azalpena topatzerakoan, sakondu gabe, bi elementu har daitezke kontuan. Bata adina: sarritan adinaren (eta lagun taldearen) arabera konturatu gabe barneratuta daukagu gaztetxeko rock kontzertuekiko edo Amaia orkestren emanaldiekiko indiferentzia, adibidez. Eta honekin bat, kontsumoari dagokionez, gizakiak oinarritzko beharrak (fisiologikoak eta segurtasunekoak) asetu ostean behar sozialetara jotzen du; beste esanetan, Kas Kola baino Koka Kola edaten dugu.

PLUS ULTRA
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Erdiko kale. 79 19 37

**T
L
E
A**

Ferrerias. 79 87 62



Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



Gehienek Mediterraneoa aukeratu dute Aste Santua pasatzeko.

Jende gutxi geratuko da herrian Aste Santuan

Arrasaten dauden bidaia agentzien esanetan, aurtengo Aste Santuan iaz baino mondrogoetar gehiago irtengo da kanpora. Beharbada urtarriletik aurrera zubirik izan ez delako, jai egun hauek kanpoan pasatzea erabaki du askok eta askok. Ohi bezala, eguzkiaren bila aterako dira gehienak. Salou, Benidorm, Malaga, Mallorca eta Canarias bezalako tokiak dira aukeratuenak eta. Beste batzuk, berriz, Europako hiriburuetara joango dira, batez ere Paris, London edo Lisboaara.

Pazko astea jai dutenek, gainera, egun

horiek ere kanpoan pasatuko dituzte. Bi aste-ko jaiak dutenen artean eskolak aipatu behar, eta zenbaitek ikasketa-bidaia egiteko aprobetxatzen du Aste Santuko oporraldia. Badi-rudi orain urte gutxi aipatzen zen krisia gaintzen ari dela, jendeak ez du oporretara joateko aukerarik galdu nahi izan.

Beraz argi dago herria zaintzen gelditzen direnek nahiko toki izango dutela kalean pasiatu, tabernaz taberna ibili edo eta zine-
ra joateko. Eguraldiak lagunduz gero, bertan ere plan ederra egun daiteke.

1.000 milioiko irabaziak LKSk

Orain dela bi urte baino %48 gehiago hazi zen iaz LKS Kooperatiba. Guztira 1.000 milioiko irabaziak izan zituén 94an; orain dela bi urte baino 47 milioi gehiago.

Gehienbat LKS Kontsul-torak izan zuen hazkundera, 500 miloi fakturatuz 93ko iharduera %73 gehitu zuen. LKS injineritza, berriz, %28 gehiago hazi zen. Eusko Jaur-laritza, Eroski, Fagor, MCC, SPRI, Osakidetza eta Arrasateko Udala izan dira LKS-ren bezero nagusienak.

San Frantziskoko erre- taula bukatu

San Frantziskoko erre-
taula konpontzeko jarri zuten andamiajea kendu egin zuten astearte goizean. Aldare nagusi-
siko erretaula bukatuta, orain erretaularen aldamenen dauden irudiak konpontzea baino ez da geratzen. Sitsak janda zegoelako hasi ziren udazkenean erretaula konpontzen. Diputazioaren dirulaguntza jaso dute frantziskotarrek erre-
taula konpontzeko eta Udala-
lak aurtengo aurrekontuetan 3.500.000 pta. luzatu die.



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARITXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58



Gipuzkoako skauten topaleku bihurtu ziren Iturrigorriko zelaiak domekan. Arrasateko Orkatz skaut taldeak antolatutako jaietan primeran pasa zuten bildutako

guztiek, eguraldia lagun txiki-nendako jokuak egon ziren eta gurasoek euren sukaldari eskua erakutsi behar izan zuten paella lehiaketan.

IZEN PROPIOAK

● **Karmele Zuazubiskar**, 32 urte, arrasatearra da Ikerlanen Euskararen erabilera sustatzeko Euskara teknikari berria. Karmelek magisteritza ikasi zuen eta orain Udal Euskaltegiko irakaslea izan da.

● **Antton Perez de Calleja** izendatu dute Idiazabal gaztaren jatorrizko izendapenaren kontseiluko presidentea. Ekonomialaria da eta Lankide Aurrezkian egin zuen lan.



Arrasateko galiziarrek **“Do Dia Da Galizia”** ospatu dute astebukaeran. Ostiralean hasi eta domekara arte ekintza ugari izan dute, Galiziako dantza taldeen emanaldiak barne. Jai berezi horretan Ribeiroa, Santiagoko opilak eta olagarroak ez ziren falta izan. Bestela ez zen galiziarren festa izango!



Azken bolada honetan **bisita mordo**a izan dugu ARRASATE PRESS eta ATBn. Azpetiako ikas-tetxetik 25bat neska-mutil etorri zitzaizkigun eta Almeneko 4. mai-

latik 80en bat, zorritzarekin azken hauen argazkiak desagertu egin zaizkigu. Hainbeste bisitekin museo antza hartzen ari da gure etxea.

MARGOAK
JUANMA
Margoak, paperak,
gotelea e.a.
Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

UGARTE
Industri
hornidurak
Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

Futbito 94-95

Txapelketa

ZALDIBARREN

Babesleak: JMa, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Eromena epaileekin Zaldibarren

Epaileekin izandako arazoak astebukaera honetan ere protagonismoa hartu dute Zaldibarren. Itxura denez, arazoak ez du konponbide samurrik eta jokalariek euren aldetik ezer jartzen ez dutenez, gero eta zailagoa ikusten da irtenbidea. 5. jardunaldian Ojo Avisorek eta Nuevo tabernak jokatu zuten elkarren kontra. Nuevo tabernakoek ez zuten epailea bakean utzi partidu osoan eta denetarik entzun behar izan zuen Andoni epaileak. "Lotsagarria" izan zen jokalarien jarrera, beraz, antolakuntzak taldea kalera botatzea eztabaidatzen ari da.

Bestalde, Fosforos eta Cervceria Leintz taldeen arteko partiduan tanga-na egon zen eta bi jokalaria ostikoka hasi zirenez epaileak kanpora bota zituen. Horrela bada, talde biek bost jokalarirekin geratu ziren. Hala ere, arazoak ez ziren bukatu eta denbora gutxira epaileak beste bi jokalaria bi segundurako kanporatu zituen, Fosforos taldeko hirugarren jokalaria batek ere ez zuen partidua bukatzerik izan. Kontuak kontu, talde biak bi partiduko zigorra bete dezateke. Zigor handiena txapelketatik kanpo geratzea litzateke eta antolatzaileek aukera hori ere ez dute baztertzen.



Felipe
Arrizabalaga
AROSZTEGIA

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Bigarren fasea

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	5	5	0	0	36	9	10
PERRAHOTSA	5	4	1	0	22	12	9
EQUUS BTR	5	3	1	1	28	19	7
ORLANDO PIRATAS	5	2	0	3	15	20	4
PEPELUS	5	0	3	2	14	23	3
HIREI	5	1	1	3	18	36	3
ARTZANKOS UDALAITZ	5	0	2	3	18	26	2
LOS DIMY	5	0	2	3	13	19	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
PUB PEOPLE	5	3	2	0	24	17	8
LOS HEREDIA	5	3	1	1	28	17	7
AC SURCOS	5	3	0	2	28	16	6
SOKOAKOAK	5	3	0	2	22	24	6
IRATI STS	5	2	1	2	23	21	5
LORATEGI POTROAK	5	1	1	3	16	22	3
D. A. IRIZTU	5	1	1	3	15	33	3
MSM INGENIER	5	1	0	4	15	21	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
CERVECERIA LEINTZ	5	4	1	0	24	11	9
FOSFOROS	5	4	0	1	32	10	8
ZULOAK	5	4	0	1	23	10	8
PETROLEROS	5	2	1	2	18	16	5
TOTEM	5	2	0	3	15	14	4
NUEBO TABERNA	5	1	1	3	15	26	3
BUKANAK	5	1	0	4	17	38	2
OJO AVISORE	5	0	1	4	10	29	1

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUMIS. UGARTE	5	4	1	0	21	8	9
ADELAIDA HAIZEA	5	3	2	0	15	7	8
MIKELOS	5	3	1	1	16	8	7
TRIKITI	5	2	2	1	12	6	6
ZOTZ	5	1	2	2	15	14	4
KE OXTIAS	5	1	1	3	11	21	3
GANBELAS	5	1	0	4	5	18	2
AUTOS MURU	5	0	1	4	6	19	1

Uribe auzoako Futbito Txapelketa

A Taldea

Leya	8
Exca. Lete	6
Berza Mutante	6
A Las 9 no	6
La Banda	5
Munar Txiki	3
DKB	2
Borrock 'n Roll	2
Energizer	2
CD Arko	0
Holokaustro Kanibal	0

B Taldea

Jotakabau	8
Balck burn	7
Arrasate Kirolak	7
Tronkoteak 6	
Eztanda egin arte	4
Trotabares	4
Los Intocables	2
Baneuko	1
Amaral	1
Pier Nodoyuna	0
Orkatz	0

Dtaldea

Uglus Txinato	7
Ke Oxtias	6
Balon Rojo	5
Los Dimy	4
Gazte Txokoa 4	
Equus BTR	4
Arrasate Zoo	3
No Comment	2
Astoen Villa	2
Garajauke	1
Eman Bidea	0

E Taldea

Koka Juniors	7
Kamasutra	6
Borrock 'n Roll	6
The Barrio	6
Dribling	5
Hirei	4
Extintis Forue	2
Ganbelas	2
Telleria Auto Eskola	2
Lo + X	0
Kurtze Txiki	0

F Taldea

Salenco y Konpañia	7
Lautherbrunnen	7
Gallinero	5
Txeyenex	5
Bodega Anboto	5
Corazon de Encina	4
Iluna Taberna	4
Berango Sukaldeak	4
Euskal Sporters	0
Sukar	0



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

ZALDIBARKO EMAITZAK

A Taldea

Argi Ibili 7 - Artzankos Udalaiz 4
 Equs BTR 10 - Hirei 3
 Orlando Piratas 4 - Los Dimy 3
 Pepelus 1 - Perrahotsa 7

B Taldea

Irati STS 5 - Lorategi Potroak 5
 AC Surcos 1 - Los Heredia 4
 MSM Ingenier 2 - Pub People 4
 D. A. Iritz 3 - Sokoakoak 9

D Taldea

Nuebo Taberna 5 - Ojo Avisore 5
 Fosforos 2 - Cer Leintz 3
 Zuloak 2 - Totem 1
 Bukanak 2 - Petroleros 10

E Taldea

Adelaida Haizea 4 - Zotz 2
 Sum. Ugarte 5 - Mikelos 2
 Trikiti 4 - Ganbelas 0
 Autos Muru 0 - Ke Oxtias 5

URIBE AUZOKO EMAITZAK

A Taldea

Holokaustro Kanibal 3 - Munar Txiki 8
 La Banda 4 - Borrock 'n Roll 3
 Berza Mutante 1 - Exc. Lete 3
 Leya 7 - CD Arko 1
 DKB 1 - A Las 9 No 3

B Taldea

Eztanda egin arte 3 - Los Intocables 4
 Blacburn 0 - Arasate KIrolak 0
 Orkatz 3 - Jotakabau 10
 Baneuko 2 - Trotacares 2
 Pier Nodoyuna 1 - Tronkoteak 4

D Taldea

Ke Oxtias 6 - Garajauke 3
 Gazte Txokoa 4 - Uglys Txinato 11
 Eman Bidea 1 - Astoen Bila 3
 Balon Rojo 0 - Equs BTR 1

E Taldea

Kamasutra 4 - Hirei 5
 The Barrio 6 - Borrock 'n Roll Prom 3
 Telleria Auto Eskola 5 - Kurtze Txiki 2
 Extintors Foruen 3 - Koka Juniors 9
 Dribling 6 - Lo + X 1

F Taldea

Gallinero 8 - Sukar 7
 Txeyenex 18 - Corazon de Encina 2
 Lautherbrunen 3 - Salenco y Konpañia 3
 Berango Sukaldeak 6 - Iluna Taberna 4
 Elisabeth 3 - Bodega Anboto 4

BELARRIRA

◆ **Epaileak.** Antolatzaileek esan digutenez epaile ofizialak berriro has daitezke partiduak arbitratzen. Aste honetan bilera izango dute eurekin eta gauzak bide onetik badoaz Aste Santu ostean Canacho, Aizkora, Carabias eta Perez izango ditugu epaile lanetan.

◆ **Aste Santuan jai.** Aste Santuko astebukaeran etenaldia egongo da Zaldibarren eta apirilaren 22-23ko asteburuan berriro normaltasunera itzuliko da txapelketa. Merezitako atsedena, taldeek eskertuko dute, bai horixe!

◆ **Golak barra barra.** Zaldibarko txapelketan 5. jardunaldia jokatu da eta 124 gol sartu dira. A taldean 39 sartu dituzte, Bn 33, Dn 30 gol eta azken taldean 22 baino ez. Uribe-Auzoa txapelketan, berriz, 194 gol egin dira 4. jardunaldian. Talde goleatzaileena F taldea izan da 54 golekin.

◆ **Atsedena.** Uribe Auzoa txapelketan Energizer, Amarral, No Comment, Ganbelas eta Euskal Suporters taldeek atsedena izango dute 5. jardunaldian.



AUTOS MURU, S.L.

NISSAN-en gamarik zabalena Arrasaten!!!

Orain zu!

Orain Nissan Micra 1.090.000 pta.tik aurrera.

Escatu Pabilioia, 3 (San Andres auzoa) ARRASATE Tfnoa: 79 27 16

AEDko Gazteen Nesken liga

Sailkapena

	Part.	Golak		PUNT.
		Alde	Kontra	
Izenbakuak	2	11	1	4
Las Mels	2	13	3	4
Txakolintxintxau	2	16	5	4
Zepaesstandon	2	10	5	2
Orlatz	1	2	6	2
Zure Atzetik	2	3	6	1
Joixon Bertan	2	4	12	1
B.G	2	4	18	0
Ireklas	1	1	8	0

Emaitzak

Izenbakuak 8 - Ireklas 1
 BG 3 - Txakolintxintxau 10
 Joixon Bertan 3 - Zure Atzetik 3
 Las Mels 4 - Zepaesstandon 2

Hurrengo Jardunaldia

Apirilaren 29an

10.00 Joixon Bertan - BG
 11.00 Txakolintxintxau - Zure Atzetik
 12.00 Orlatz - Izenbakuak
 13.00 Ireklas - Zepaesstandon



Nesken ligan bigarren jardunaldia jokatu zen zapatuan. Emaitza aipagarriena Txakolintxintxauk lortu zuen, 10 eta 3 irabaziz BG taldeari eta. Txakolintxintxau taldekoak sendo dabilta eta gol gehien sartu duen taldea izan da 16 guztira. Txapelketa honetan Mondrako emakumeen taldeko arduradunak begirale lanak egiten ari dira. Beharbada, datorren denboraldian nesken ligan dabiltzan neska batzuk Mondran jokatzeko aukera izan dezakete, futbitok futbolera pasa daitezke. Bestalde, antolatzaileek "euskaraz" berba egitea eskatzen die jokalariei partiduetan.

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

UDALAITZ, S. A.



Merezi duzun segurtasuna!

Musakola auzoa, z/g. Tfnoa: 79 18 80 / 79 21 25 ARRASATE

Birziklatutako altxorrak

Maidor Egües

Denbora gehiegi zeramaten langabezian eta besoak gurutzatuta egotea baino, euren kabuz zerbait egiten hasia nobeto izango zela erabaki zuten Lourdes Lazkano eta Elena Maiztegi oñatiarrek.

Idea polit bat bururatu eta abian jarri zuten ahal izan zuten moduan: zabortegietara joan eta jendeak botatzen zituen altzari, jantzi, beira, liburu, ohe, aulki eta gainontzekoak, jaso, konpondu eta saltzen hasi ziren. Horrela sortu zen Oñatin "Arrastro" birziklai denda.

1994ko azaroaren 17an zabaldu zituzten dendako ateak. Aurrez, bazeramaten denbora bat Deba Garaiko zabortegiak miatu eta aurkitzen zuten guztia jasotzen. Horrela, pixkanaka pixkanaka, aurrez jolas aretoa izan zen lokala bete zuten. Denbora gutxira Kalezaharreko aretoa sitsak jandako altzariz beteta zegoen.

Bost hilabete berandua, "Arrastro" birziklai denda hasieran baino askoz beteago dago. Jendeak etxeko altzari zaharrak eramaten ditu bertara, berriztu eta berriz ere etxera eramateko. Lourdes eta Elena ez dira kexatzen, "negozioa ondo dihoakigu" baina euren sorbaldan, kre-

ditu baten zama daramate.

KARITASEN LAGUNTZAZ

Karitasek interesik gabeko dirurik ez balie utzi, ez legoke gaur egun "Arrastro" izeneko dendarik. Erakunde honen dirulaguntza, ezinbestekoa izan zitzaizen jasotako altzari guztiak uzteko toki bat alokatu eta altzari horiek konpontzeko behar den tresneria erosi ahal izateko. Karitasek 50.000 ptako alokairua ordaintzen die hilero eta bai-

ta Gizarte Zegurantzaren ere. Zubillagako tailerrean dauzkaten makinak, berriz, aldi-ka ordaintzen dituzte, 2 milioi osatu arte.

Konpondutako altzarien salmentaz ateratzen duten diruarekin, mailegua ordaintzen diote karitasei eta denbora gutxi barru, Diputazioak luzatu dien diru-laguntza heltzen zaienean, tresneriaren gastuak ordaintzen bukatuko dutela uste dute bi oñatiarrek.

Gainera, gutxika gutxika jendea denda ezagutzen doa eta

gero eta altzari gehiago eramaten dizkiete berrizteko.

ZERBITZU UGARI

Lourdesek eta Elenak denetarik egiten dute: altzari zaharrak, arropak edo aprobetxatu daitekeen edozer gauza zabortegietatik jaso; jasotako guztia konpondu; sitsaren aurkako tratamendua egin; zurgintza lanak eta beira eta ispiluak moztu. Guzti hau duela hiru urte zurgintza ikastaro batean ikasitakoari esker egin dezakete. INEM-ek eta Oñatiko Udalak elkarlanean antolatu eta buru-belarri sartu ziren ikastaro horretan.

Bestalde, norbaitek bere etxeko altzariak zabortegira bota nahi dituztenean, Lourdes eta Elena bere etxera joan eta guztiak jasotzen dituzte. Hasieran eta ahal zuten moduan, kotxe batean sartzen zituzten, baina lagun batzuk furgoneta handi bat oparitu zieten kotxean sartzen ez ziren altzariak ere jaso ahal izan zituzten.

Horrela, zabortegiz zabortegi miatuz jaso dituzten gauza guztiekin, gaur egun gainezka dago denda, bertan aukera galantak aurki daitezke; gauza merkeak eta onak.

Dena dela, Elenak aipatzen digun moduan, ez dute nahi beste altzari jasotzen. Deba Garaiko herrietako zabortegietan aurkitzen dutenarekin konformatu behar izaten dute: "Hondakin Alternatiboen Depositaria" sartu nahi genuke, jendeak altzari



Elena Maiztegi eta Lourdes Lazkano.



Altzariak konpondu, berriztu eta sitsaren aurkako tratamendua ematen diete.

asko botatzen ditu bertara eta, baina mankomunitateak ez digu ez Arrasatekora, ez Bergarakora ezta Oñatikora sartzen uzten." Hala ere, Kalezarreko "Arrastro" birziklai denda, trastez beteta dago.

Lourdeseek noizean behin "altxorrak" aurkitzen dituztela esaten du, "zaila da baliozko gauza batekin topo egitea, baina jendeak ez daki zer botatzen duen zaborte-gira eta batzutan gauza balioitsuak aurkitu izan ditugu, edozein antikuariok nahi izango lituzkeen gauzak, benetan. Gainera, penagarria da horrelako gauzak botatzea; kalean hondatu egiten dira eta guk jasotzen ditugunerako ez dute konponketa errazik izaten".

Lourdeseek, jendeak zerbitzu honen berririk ez duela esaten du, "jendeak denda honen berri izango balu, telefonoz deitu eta gu euren

etxera joango ginateke nahi ez duten guztia jasotzera. Guri mesede handia egingo ligukete eta baita guk eurei ere. Hasieran, dendaren berri emateko, buzoneoa egin genuen baina emaitza onik lortu barik. Hona datozenak edo telefonoz deitzen ditugutenak, ahoz-ahoz dendaren berri izan dutelako izaten da. Beraz, erreportai hau ez zaigu batere gaizki etorriko... ea jendea zertxobait kontzientziatu eta ez dituen altzariak halanola balkoitik behera botatzen, horrelako kasuak ere ezagutu ditugu eta!"

PREZIO ALDAKORRAK

Bi oñatiarren helburua ez da jasotako gauzen prezioa igo eta sekulako negozioa egitea. Birziklapena guztiz beharrezkoa dela uste dute eta horren alde lan eginez, eguneroko ogia ateratzen saiatzen

dira. Dendan saltzen dituzten gauzen prezioak ere, ez dira guztiz finkoak, "egoera ekonomiko justu samarreko norbait dendara etortzen bazaitgu eta zerbait erosi nahi badu, prezioa jeisten diogu. Duela gutxi pisua erosi berri zuen gazte bat etorri zitzaigun eta logela bat osatu nahi zuen. Kreditu batean sartuta zegoen eta logela merke baten bila etorri zen. Azkenean, armairua, ohea eta mesanotxeak erosi zizkigun eta guk, diruz ondo ez zebilenez, "arreglotxo" bat egin genion" dio Elenak.

Kontuak kontu, denda honetan gauza merkeak eta politik erosi daitezkeenik ezin uka; 2.000 pztako sofak, mahaitxoak eta aulkiak; 7.000 pztako ispilu zaharrak, 5.000 pztako sehaskak, 200 urte dituen 95.000 ptako egurrezko tximinia... birziklatutako altxorrak dira guztiak.

Z
abortegetan
gauza baliotsuak
aurkitu izan
ditugu, edozein
antikuariok nahi
izango lituzkeen
gauzak.



Jokalari hauen lana erabakiorra izan da lehen erregionalerara igotzeko.

2. erregionalekoek mailaz igotzea lortu dute

Mondrako 2. erregionaleko taldeak denboraldi boro-bila egin ondoren, mailaz igotzea lortu du. Ondorioz, datorren denboraldian lehen erregionalean jokatu dute gazte hauek eta euren merituengatik lortu dute saltoa ematea. Denboraldia hasi zenetik makina bat arazo izan dute. Alberto Perez entrenatzailea denboraldia hasteko bi aste falta zirenean ekarri zuten, ia ia ganorazko aurrendenboraldia egiteko denbora barik. Hasieran taldean ez zeukaten astebururo astebururo partiduak jokatzeko behar beste jokalarik. Beraz, Alberto Perez entrenatzaileak eta Luismi delegatuak denetik egin behar izan zuten jendea bilatzeko. Arazoak arazo, 15 jokalariko taldea osatzea lortu zuten, ohorezko ligatik jokalarik batzuk har-

tuz. Handik eta hemendik jendea elkartu ondoren, denboraldia hasi eta emaitza positiboak lortzen hasi ziren eta horren erakusgarri irabazi dituzten neurketak: 25 partiduetatik 16 irabazi dituzte, berdindu 5 eta galdu beste bost, liga 3. tokian bukatu dute 37 punturekin. Golei dagokionez, 61 sartu dituzte eta 42 jaso.

Taldeko batz besteko adina 19 urtekoa da. Taldea jokalarik hauek osatzen dute: atezainak; Oscar, Igor eta Iban. Defentsan, Mikel, Juanjo, Aritz, Joseba, Gonzalo, eta Mikel del Rio. Zelai erdian, Alberto, Igor, Roberto Beñat, Rafa eta Jordi eta aurrean David, Jon, Mario eta Oxel. Talde honetako 8 jokalarik 3. mailakoekin entrenatzen dute: Iban, Aritz, Gonzalo, Beñat, David, Oxel, Golo eta

Tola. Ez bakarrik entrenatu batzuk jokatu ere egin dute.

Zapatuan denboraldiko azken partidua jokatu zuten Kilimon taldearen kontra eta Mondrak samurtasun osoz irabazi, zuten 3 eta 1. Golegileak Golo birritan eta David izan ziren. David Martinez, gainera, 2. erregionaleko pitxitxia da, 24 golekin.

Horrela bada, dagoeneko, liga bukatu zaie 2. erregionalekoei. Hala ere, Aste Santu ostean Gipuzkoako Kopa jokatu beharko dute. Kopa bukatuta eta merezitako oporraldia izan eta gero, berriro, entrenamenduei eutsiko diete. Lehen erregionalean ere itxura ona erakusten saiatuko dira eta horretarako lana gogor eta gogoz egin beharra dago. Gure alde tik zorianik beroenak 2. erregionalekoei!

Eskubaloikoek lehen mailan jarraituko dute

Arrasateko eskubaloi taldeak Betacar taldearen kontra jokatu zuen domekan. Partiduan jeitsiera fasea zegoen jokuan. Arrasatek lehen mailan jarraitzeko irabazi egin behar zuen nahi eta nahiez edo galduz gero, 3 goleko aldea baino gutxiagoz. Arrasatek galdu egin zuen baina gol bakar bategatik 22 eta 21. Beraz, lehen mailan jarraituko dute Imanol Alvarezen mutilek beste urtebete gutxienez.

Hasierako zalantzak gainditu ondoren, lehen kategorian jarraitzeko maila badutela erakutsi dute eskubaloikoek eta erantzunkizuna hartu behar denean hartzen bada kitela ere argi utzi zuten azken partiduan. Zorionak!

3. mailako Mondrak

3. mailako Mondrak ez du atsedunik izango Aste Santuan. Eguen Santuan Durangoren bisita jasoko du Atxabalpen. Partidua arratsaldeko 5etan hasiko da. Astelehenean, berriz, Mungiairen kontra jokatu dute, azken sailkatuaren kontra Mungian. Apirilaren 23an, domeka, Gasteizeraino joango dira eta Gasteizko Aurrera izango dute aurrean, arratsaldeko 5etan. Aurreraren arteko neurketa zaila izan daiteke.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

JUAN IGNACIO MONTIANO Dk.

PEDIATRA

"San Martin Osasundegia"
Ramón M^o Lili, 2

BERGARA

Tfnoa: 76 59 39 Faxa: 76 25 72

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

Albert Pla

Hitz gutxi eta kantu ugariko gizona

Hitz gutxiko gizona dela esatea, gehiegi esatea da. Gutxi hitzegiten du, ia ia, ezer ere ez. Bere espezialitatea kantatzea denez, Arrasaten kantatu egin zuen, eta gainera, publikoaren eritziz, oso ondo. Hori bai, emanaldia berezi samarra izan zen.

—Zergatik aukeratu duzu Fonollosa poeta zure emanaldirako? Eraginik izan du zuga?

— Egia esan, bere liburu bat irakurri nuen eta idazten zuena gustatu zitzaidanez, bere poesiak errezitatzea pentsatu nuen. Berez, nik ez dut poeta hau ezagutu: 1991an hil zen, kasualitatez, bere poema bat errezitatu nuen hurrengo eguneko goizean. Ez dut uste nigan eraginik izan duenik baina bere poesiak gustatu zitzaizkidan eta nire emanaldietan errezitatu egiten ditut.

— Gustora geratu zara Arrasateko emanaldiarekin?

— Ez, lokala ez zen egokiegia. Normalean, argi jokuak erabiltzen ditut eta tartean, poesiak esan edo abestiak kantatzen ditut eta Amaia Antzokian ezin izan dut guzti hori egin.

— Berandu eta nahiko bapatean hasi zinen musikaren munduan. Zerk eraman zintuen bertara?

— Ez neukan mundu honetan sartzeko asmorik,



baina abestiak egiten hasi eta bapatean murgilduta nengo-ela konturatu nintzen.

— Zure musikak belaunaldi oso baten moralean izan duela eragina dio egunkari batek...

— Uf! Pasatu egin da, ez? Ez dut uste hori egia denik.

— Nola definituko zenuke zure musika?

— Ez dakit, ez nuke definituko... ahal dudana egiten saiatzen naiz eta kitto.

— Zer sentitzen duzu hor goian, eszenatokian, abesten

ari zarenean?

— Beno, hori lekuaren eta publikoaren arabera izaten da. Gaur, adibidez, nahiko kontzertu arraroa izan da. Lokala ere arraroa zen eta jendea leku askotan zegoen, beraz, publikoaren gainean egon behar izan dut inor despistatu ez zedin.

— Zer musika entzuten duzu zuk?

— Ezer berezirik ez. Musika entzutea ez da nire afizioetako bat, ez zait gehiegi

gustatzen.

— Zeintzuk dira zure afizioak?

— Etxean egon, ortuan ibili eta nire zaldiak zaintzea.

— Orduan, hiritik kanpo bizi zara, ez?

— Bai, mendian bizi naiz, baserri batean. Lasaitasuna gustatzen zait.

— Musika kritiko baten arabera, artearen alde arriskutsutik ibiltzen zara. Zer diozu?

— Gauza horiek ez ditut irakurtzen... eurek idaztearekin nahikoa da, ni ez noa ezer komentatzera!

— Bira egiten ari zarete?

— Ez, ez da bira bat. Azarotik kontzertuak ematen ari gara eta gutxi-gorabehera astero bana ematen dugu.

— Arrasaten ez ezik, Euskal Herriko beste eszenatoki batzuetan ere jo izan duzu...

— Bai, Victoria Eugenia antzokian eta baita Printzipalean ere.

— Zure kontzertuko zati batean emakumeekin sartu omen zara eta norbaitek kutsu matxista duzula esan du...

— Emakume eta gizonen, txurien eta beltzen desberdintasun horiek ez ditut ulertzen... ez diet kasurik egiten.

— Gutxi hitzegiten duzu. Kazetariak ez omen dituzu gustoko...

— Ez da hori, bakoitza bere lana egiten ahalegintzen dela uste dut, besterik ez.

Apirilaren 21ean Gaztetxean Albert Pla berriro iksteko aukera izango da, oraingoan Abiadura Handiko Trenaren kontrako jaialdian

PUB HAIZEA

arrasate

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23

Epelde



P guztia edo gehiena. Tipleak ere berak prestatzen zituen. Egutero eguerdian izaten zituzten entsaioak, eta ospakizun bereziren baterako prestakuntza tokatzen zenean, hilabete t'erdi lehenago egutero iluntzean berandura arte. Nagusiekin batera astebete lehenago egiten zuten.

Arrasateko bertako ospakizunetan kantatzeaz gain, kanpoan ere "kotizatuak" zirela esan behar, hara eta hona ibiltzen ziren eta.

Aste Santuko elizkizunen ondoren, koru guztiak mokatutxo bat izaten zuen Zentro Katolikoan eta sasoiari zegokion eran, guraina antxoia eta ardaia izaten ziren jateko.

Goitik ezkerretik, Jose Mari Kortabarria, Castor

Uribe, Pedro Zumelaga, Antonio Ezkurra, Simon Etxebarria, Juanito Larrañaga, Jose Antonio Goñi, Otxoa, Teodoro Mendizabal, Jabier Olalde, Patxi Nafarrate, Jesus Palacios, Rafael Mendizabal, Eduardo Fernandez, Alfonso Gorroño-goitia, Bixente Urzelai eta Jose Markaide.

Mario Sarrionaindia, Jose Antonio Agirre "Maño", Santi Etxeberria "Zurdo", Pedro Barrutiabengoa, Joxe Berebizar, Laureano Letamendi, Enrike Maidagan, Maza, Anton Zubillaga, Luis Mari Maidagan, Jesus Barrutia, David Arzamendi, Felix Ugalde eta Paulo Zumelaga.

Iñaki Arrieta, Joxe Otxoa, Joxe Ibañez, Joxe Ramon

Zubillaga, Santos Azkoaga, Pepe Castellanos, On Dionisio Isasmendi, Joxe Mari Juldain, Jabier Landaluze, Julio Iriondo, Alfonso Arzamendi eta Julio Galarta.

Tipleak, goiko lerroan, Jose Ramon Ozaeta, Jabier Aperribai eta Jose Mari Berebizar.

Angel Arana, Jose Antonio Altuna "Txatillo", Jabier Galdos, Jesu Maza, Eduardo Letona, Luis Mari Arana, Jose Antonio Zarraoa eta Jose Luis Mendiartx "Pequeño".

Miguel Angel Zubizarreta, Iñarra, Angel Landa, Santi Altuna, Felix Ayala, Jose Antonio Gonzalez "Txiki", Anton Markaide eta Juan Luis Lizarralde.

arrokiako koruak orain baino partaide gehiago eta ospe handiagoa zuen garaietako argazkia da hau. 1947ko Aste Santuan atera zuten, elizkizunaren ondoren Santa Barbarako eskaileretan San Jose ikastetxearen atzealdean.

Hautetako askok zor diote On Dionisio Isasmendiri kantu eta musika mailan dakiten

Ikerne Heriz Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ilepaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Masaiak
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak
- Azal garbiketa
- Ezkongaiantzako makilajea

Z E R N A H I A G O ?

Imanol Etxeberria

ONCEko kupoi saltzailea

- **Noiztik lan honetan?** Abuztuan 3 urte egingo ditut.
- **Nola etortzen zara Arrasateraino?** Orain Arrasaten bizi naiz hiru lagunekin, baina ahal dudanean nire herrira, Astigarragara, joaten naiz.
- **Zenbat kupoi saltzen duzu eguneko?** Saltzaile on batek ez du saltzen duena esaten.
- **Neguan zer egiten duzu hotzaz babesteko?** Gora eta behera ibiltzen naiz eta arropa egokiak jutzen ditut.
- **Nola ikusten duzu ONCE erakundeak azken urteotan egindako lana?** Orain diru gehiago mugitzen da eta hau gertatzen denean beti egoten dira "gorroiak".
- **Zenbat tokitan izan zara lanean?** Hamar herri-tan saldu ditut kupoiak.
- **Banatu duzu sari garrantzitsurik?** Hernanin bost zenbakiak eman nituen eta hemen ere eman ditut laukoak; Beti Martxoan izan da.
- **Lagun asko egin duzu Arrasaten?** Bai.
- **Zer iruditzen zaizu Arrasate?** Izan naizen toki guztien artean, Arrasaten ikusi dut maila ekonomiko eta kultural onena.
- **"Cuponazo" a tokatuko balitzaizu... ?** Kriston afaria egingo nuke lagunekin.
- **Asko ligatzen da lan honetan?** Bai, prest bazaude behintzat, bai.
- **Animalia bat?** Txakurra.
- **Oso erromantikoa zara?** Baietz uste dut.
- **Asteburuetan zer egiten duzu?** Bizikletan asko ibiltzen naiz eta musika entzutea ere asko gustatzen zait.
- **ONCE txirrundulari taldea jarraitzen duzu?** Bai.
- **Arrasateko zein tokitan saltzen da gehien?** Portaloian.



LABURRAK

Golf eta Saltsa ikastaroak

Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak, Golf eta Saltsa ikastaroak antolatu ditu. Golf ikastaroa Arabako Bernedon izango da eta bi txandatan banatuko da. Lehen maiztaren 6-7, 13-14 eta 20-21ean eta bigarrena, ekainaren 3-4, 10-11 eta 17-18an.

Deba Garaiko edozein Udal Kirol Zerbitzuetako bazkideek 20.000 pta ordaindu beharko du eta bazkide ez denak 23.000. Lehen txandarako izenematea apirilaren 24a aurretik egin behar da eta bigarreneko maiztaren 15a baino lehen.

Bestalde, Arnaldo Patterson maisuak Saltsa ikastaroa emango du Arrasaten maiztzean. Eskolak astearte eta ostegunetan izango dira; martxoaren 18, 23, 25 eta 30ean eta ekainaren 1ean.

Eskolak goizez nahiz arratsaldez izango dira: goizetan 11etatik 12.30etara eta arratsaldetan 6.30etatik 8etara eta 8etatik 9.30etara. Izen ematea Musakolako kiroldegian egin behar da lehen bait lehen.

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA


Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral

5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99




LORATEGI "BAR"

Iturriotz, 7 ARRASATE
Tfnoa: 79 04 67

TXOKO TABERNA

Cure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

• JEROGLIFIKOA •




Aitona baratzean,
amona berriz...

• SOLUZIOAK •

Sutondoan.
Jerglifikoa:

15. Pae. 16. Ria. 18. Do.
5. Afaria. 6. Gor. 7. Inxaur. 8. Noe. 12. Ulla.
Bertikalak: 1. Txispas. 2. Ei. 3. Hada. 4. Lotu.
19. Aui. 20. Sakonera.
Horizontalak: 1. Teilagim. 9. Xilofono. 10.
Aiarre. 11. Sudur. 13. Pla. 14. Ipar. 17. Ai.

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Teilagim. 9. Xilofono. 10. Aiarre. 11. Sudur. 13. Pla. 14. Ipar. 17. Ai. 19. Aui. 20. Sakonera.

Bertikalak 1. A. Ibarluzea, AUKEAko Lehendakaria. 2. Omen. 3. Lerro, errenkada. 4. Bi gauza soka batez batu. 5. Iluntzean egiten den azken otordua. 6. Entzumenik ez duena. 7. Intxaurrondoaren fruitu lehorra. 8. Arka bat eraiki zuen. 12. Donostialdeko mendia. 15. Palestinaren Askapenerako Erakundea. 16. (Ald.) Nigerko mendiak. 18. Musika-eskalako 1. nota.

• HOROSKOPOA •

Aries Eguzkia larregi hartzen duzu. Bi ordurekin nahikoa duzu.

Taurus Aspaldi honetan maribandera galanta eginda zaude.

Gemini Zenbat ordu pasatzen dituzu lo? Ohea sarkofagoa delakoan?

Cancer Opor ostean zure poltsikoaren egoerak okerrera egingo du.

Leo Gogoz, indarrez, fedez eta amorrutuz, nahi duzuna lor dezakezu.

Virgo Despistaturik zabilta azkenaldian. Maitemindurik ala?

Libra Itxura horrekin lapur kuadrilabateko partaide zarela pentsa daiteke.

Scorpio Lan guztiak zeuk egiten dituzu. Etxeko robota dirudizu.

Sagitaris Noizean behin pekatutxo batzuk egitea ez da kaltegarria izaten.

Capricorn Eguntan kanpora zozela? Baina non egongo zara etxean baino hobeto?

Aquarius Zure bizitzan izugarrizko kaosa dago.

Piscis Ez zaizu entzuten. Igo bolumena!

Etxe-Aundi




Andregaiak, galdetze hutsagatik, oparia jasoko du
ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU
Anna de Codorní

8. Mailako Ikasle eta Gurasoentzat

Informazio Bilera



GAIAK

- Batxilergo orokorra.
- Goi Batxilergoa.
- Geroko irtenbideak.

Eguna: maiatzak, 2
Lekua: Almen
Ordua: 6etan



ALMEN
IKASTOLA

Etxebizitzak

- **Garaje plaza salgai** J. I. Iñarra pasealekuan. Prezio onean. Tfnoa: 79 07 34.
- **Aste Santurako** apartamentua alokatzen da Torrevejan (La Mata hondartzan). Tfnoa: 71 63 19.
- **Pisua alokagai Eskoriatzan.** 97 m². Sukaldea, 3 gela, terraza. Tfnoa: 71 43 51. Gaueko 9etatik 11etara.
- **Apartamentua daukat Jacan** udaran alokatzeko. Tfnoa: 74 15 22.
- **Garajea alokagai Larrea Plazan,** Tfnoa: 79 36 79.
- **Garaje itxia alokatzen da Larrea aldean.** Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.

Lana

- **Magisteritza bukatua dut eta klase partikularrak emango nizkie OHO ikasleei.** Interesatzen bazaizu deitu 79 94 04 tfnora. Marijo.
- **Neska umeak zaintzeko neska prest.** Tfnoa: 79 90 04. M^a Jose.
- **Umeak edo pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 39 15.
- **Neska prest,** etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 96 10
- **Esperientziadun** emakumea gertu dago etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuek dei egin larumbat eta igandeetan 79 31 44. Mirian.
- **Taberna edo denda batean lan egingo nuke.** Tfnoa: 77 02 70.

- **Etxeko edo atarteko** garbitasunak egiteko gertu. Tfnoa: 79 37 95.
- **Erizain laguntzailea** eta esperientziadun gero-kultorea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.
- **Egunero 2 edo 3 orduan** etxeko lanak egiteko emakumea gertu. Tfnoa: 77 10 20.
- **Mutil gazte bat lana egiteko prest** Kamarero, eraikuntzan... Tfnoa: 79 77 32.
- **Esperientziadun neska euskalduna** behar da, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 21 63 tfnora.
- **Klase partikularrak** ematen dira. UBI mailara arte. Matematikak fisika, kimika... Talde txikiak. Tfnoak: 79 56 82 eta 79 71 89.
- **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko edo dendarri lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17
- **Neska gertu umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia daukat. Tfnoa: 79 77 94.
- **Andra euskalduna** etxeko lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Umea zaintzeko** pertsona euskalduna behar da. Dei egin eguerdiko ordu 1etik ordu 2etara. Tfnoa: 77 13 30.
- **Puerikultura laguntzailea** esperientziaduna umeak zaintzeko gertu. Batez ere ume txikiak. Tfnoa: 79 32 39

Salerosketak

- **Bi garaje plaza alokatzen dira.** Tfnoa: 79 82 95. Amaia. Arratsaldez.
- **BMW K-75-S salgai.** SS-AK matrikula. 27.000 km. Berria eta prezio onean. Tfnoa: 77 04 21.

- **Motorra salgai.** BMW K75 - S. Matrikula: SS-AK. 27.000 km. ditu. Berria eta merkea. Tfnoa: 77 04 21.
- **Siberiar huski zakur kumeak salgai.** Begi urdin-dunak. Oso merke. 35.000 pta. Tfnoa: 79 57 03.
- **Asolo markako** mendiko botak salgai. 41 zenbakia. Prezio onean. Tel. 79 23 60.
- **Gas naturaleko kalentadorea salgai.** Prezio onean. Tfnoa: 79 59 72.
- **Bi pare eski** eta bi pare bota salgai. 33.000 PTA-gatik. Tfnoa: 79 25 31. Gauez.
- **Gaztainondo egurrezko** "armairu zubia" saltzen da bi ohekin. Prezioa erabakitzeke deitu 79 44 00 tfnora.
- **Kanping-denda salgai.** Oso handia eta egokia onean. Tfnoa: 74 15 22.
- **Nissan Serena** salgai prezio onean. Tfnoa: 79 19 55.

Denetarik

- **Historialari bat** eskaintzen da genealogia egiteko. Tfnoa: 88 30 72. Arkaitz. Iluntzeko 8etatik aurrera.
- **Urrezko pultsera galdu zait.** Aurkitzen duenak deitu dezala 79 04 59 tfnora. Ordainduko da.
- **Musika taldeak lokala konpartituko luke.** Tfnoa: 79 91 34 (arratsaldeko 3etatik 7etara).
- **Gay edo lesbiana al zara?** Bizitza guztia ezkurtuan pasa behar al duzu? Ez dezala inork zure sexualitatea muga, erakutsi zure maitatzeko gaytasuna. Zure zain gaude. 128 postakutxa. 20700 Zumarraga.
- **Atzerriko jendea hartzeko** familiak behar dira. Interesatuta bazaude dei egin telefono honetara: 79 01 32



URONDO
elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Proiektuak**

- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Jose Aranzabal

ELEKTRAGAILUAK

Iturriotz, 15 Tfnoa: 79 15 16

SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktorea, 2 Tfnoa: 79 18 92



*Electrolux garbigailuek badakite
ur ttantta batek balio duena.
Eta zuk?*



OPEL VECTRA BERRIA

merit



GUTXIK EMATEN DUTE HAINBESTE HAIN GUTXIREN TRUKE.

115 CVko 2.0i alemaniar batek adina, Opel injinerutza Alemaniar ospetsuak indartua. Zuk merezi bezalako ekipamendua: **Direkzio lagundua, pretentsoredun segurutasun uhalak, alboetako segurtasun-barrak, itxitura zentralizatua, leihoak isteko elektricoa, atzekaldeko jarlekuetan ere burua etzatekoa, antena elektrikoa...** ikusteko zein berba egiteko hainbeste emango dizu, ezin zara Opel Banatzailearengana probatzera etorri barik geratu. Izan ere, sekula ez duzu hain gutxiren truke hainbeste jaso.

OPEL VECTRA MERIT BERRIA. BERE PREZIOA MERITU HUTSA DA.

OPEL

Z U R E Z A I N G A U D E

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL BANATZAILE OFICIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.